

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

2019ko aurrekontuko langileen plantilla aldatzea

Udalak, 2019ko irailaren 20an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea langileen plantillaren aldaketari, eta, horrekin lotuta, lanpostuen zerrendaren eta langileen eranskinaren aldaketari, eta, hala, lan kontratuko peoi lanpostu huts bat aitortzea.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da plantillaren aldaketa.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lapuebla de Labarca, 2019ko irailaren 25a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ